



Zergatik aldatzen da lanpa baten dirdira ?

1. Lanpak argitzen du

- Zirkuitu elektriko bat eraiki dezagun, generadore aldakor bat, anperometro bat, lanpa bat eta etengailu bat lotuz

2. Lanpak gehiago argitzen du

- Generadorearen doiketa alda dezagun, lanpak gehiago argi dezan.



Beha

1. irudiko zirkuituan, beha lanparen dirdira, eta anperometroak erakusten duena idatz.
2. 2. irudiko zirkuituan, beha lanparen dirdira, eta anperometroak erakusten duena idatz.

Informazioak aztertu

3. Nola aldatzen da korrontearen intentsitatea lanparen dirdira azkartzen delarik ?
4. Lanparen dirdira ahultzen balitz, zer ondoriozta liteke korrontearen intentsitateaz ?

Ondoriozta

5. Ondorioa idatz, galdera honi erantzunez : “Zergatik aldatzen da lanpa baten dirdira ?”


Laguntza

Anperometroari esker, korrontearen intentsitatea neur daiteke. Unitatea anperetan adierazten da (sinboloa: A).


Intentsitatea berdina dea begizta bakarreko zirkuitu bateko toki guzietan ?

1. Intentsitatearen neurketa puntu batean

- Zirkuitu elektriko bat eraiki dezagun, seriean lotuz generadore bat, anperometro bat, lanpa bat eta etengailu bat.




1. irudia




2. Intentsitatearen neurketa beste puntu batean

- Anperometroaren tokia zirkuituan alda dezagun.



2. irudia



Beha

1. Azal zein tokitan den anperometroa lehen zirkuituan (1. irudia). Zein da korrontearen intentsitatearen balioa generadorearen + bornea eta lanparen artean ?
2. Azal zein tokitan den anperometroa bigarren zirkuituan (2. irudia). Zein da korrontearen intentsitatearen balioa lanpa eta generadorearen - bornearen artean ?

Informazioak aztertu

3. Bi kasuetan neurtu intentsitateak konpara itzazu.

Ondoriozta

4. Ondorioa idatz, galdera honi erantzunez: "Intentsitatea berdina dea begizta bakarreko zirkuitu bateko toki guzietan?"


Kasu!

Anperometroa tokiz aldatu aitzin, generadorearen + bornea deskonekta ezazu, zirkuitulaburren saihesteko.


Intentsitatea zirkuituaren osaketaren arabera dea ?

1. Intentsitatearen neurketa zirkuitu batean

- Zirkuitu elektriko bat eraiki dezagun, seriean lotuz generadore bat, lanpa bat, etengailu bat eta anperometro bat.
- Korrontearen intentsitatea neur dezagun.




1. irudia




2. Motore bat emendatuz

- Motore bat lanparekin seriean emenda dezagun zirkuituan.
- Korrontearen intentsitatea neur dezagun.



2. irudia



Beha

1. Korrontearen intentsitatea neur lanpa duen zirkuituan (1. irudia).
2. Lanparen diridira aldatzen dea motorea zirkuituan emendatzean ? (2. irudia).
3. Korrontearen intentsitatea neur lanpa eta motorea dituen zirkuituan (2. irudia).

Informazioak aztertu

4. Bi kasuetan neurtu intentsitateak konpara itzazu.
5. Nola aldatzen da korrontea dipoloen kopurua emendatzean serie zirkuitu batean ?

Ondoriozta

6. Ondorioa idatz, galdera honi erantzunez : "Intentsitatea zirkuituaren osaketaren arabera dea ?"

Kasu !

Zenbat lotura-hari gehitu behar dira zirkuituaren aldatzeko ?

Intentsitatea zirkuituan dipoloen ordenaren arabera dea ?

1. Intentsitatearen neurketa zirkuitu batean



- Korrontearen intentsitatea neur dezagun, serie zirkuitu batean lotuz generadore bat, lanpa bat, etengailu bat eta motore bat.

1. Dipoloen ordena aldatzen da


- Lanpa eta motorea tokiz alda ditzagun.
- Korrontearen intentsitatea neur dezagun.



1. irudia



2. irudia



Beha

1. irudian, korrontearen norantza eta dipoloen ordena beha. Korrontearen intentsitatea irakur.
2. irudian, korrontearen norantza eta dipoloen ordena beha. Korrontearen intentsitatea irakur.

Informazioak aztertu

3. Intentsitateen balioak konpara bi zirkuituetan. Zer ondorioztatzen duzu ?

Ondoriozta

Ondorioa idatz, galdera honi erantzunez: "Intentsitatea zirkuituan dipoloen ordenaren" arabera dea ?"


Kasu !

Anperemetroaren kalibre bera atxik dezagun, neurketak hobekiago konparatzeko.


Hitzen bidez ikasten dut

- Korrante elektrikoaren **intentsitatearen** unitatea anperera da (sinboloa: **A**).
- Korrante elektrikoaren intentsitatearen neurtzeko, **anperemetro** bat erabiltzen da. **Seriean** lotu behar da zirkuituan.
- Anperemetroan irakurtzen den intentsitatea positiboa izan dadin, korronteak **A (edo mA)** bornetik behar du sartu, eta **COM** bornetik atera.
- legeak :
 - Serie zirkuituan, korrontearen intentsitatea berdina da zirkuituko edozein tokitan.
 - Serie zirkuituan, korrontearen intentsitatea apaltzen da dipoloen kopurua emendatzean.
 - Serie zirkuituan, dipoloen kokaguneak ez du eraginik korrontearen intentsitatearengan.

Marrazkien bidez ikasten dut



Anperemetroa seriean lotzen da zirkuituan



Anperemetroaren lotura-norantza

Gaitasunak

- Multimetro bat anperemetro gisan erabiltzen jakitea.
- Multimetro bat anperemetro gisa ongi lotzea intentsitate positibo baten neurtzeko zirkuitu batean
- Korrante baten intentsitatea neurtzen jakitea kalibrerik egokiena erabiliz.


Ariketak

1- Kopia eta osa

- Korrontearen intentsitatea zirkuituan lotu batekin neurtzen da.-tan adierazten da.
- b- Begizta bakarreko zirkuitu batean, korrontearen intentsitatea da zirkuituko edozein tokitan. Anperometroa, ondorioz, tokitan ezar daiteke.
- c- Begizta bakarreko zirkuituan, korrontearen intentsitatea zirkuitua osatzen duten dipoloen da.
- d- Begizta bakarreko zirkuituan, korrontearen ez da zirkuitua osatzen duten dipoloen araberakoa.


2- Eskema egokia hautatu

Zein da anperometroaren muntaia egokia erakusten duen eskema ? Erran zergatik den gaizki bestea.



3- Erantzun egokiak hauta

Zirkuitu honetan, anperometroak 200 mA erakusten du. Tresnak kalibre berean doituak daude.



Erantzun egokiak hauta A₁ eta A₃-rentzat, hauen artean hautatuz.

- a- 100 mA ; b- 200 mA ; c- 300 mA.


4- Unitate-aldaketak

Unitate-aldaketak egin :

- a- 0,125 A = mA ; 350 mA = A ;
- b- 0,047 A = mA ; 72 mA = A ;
- c- 1,630 A = mA ; 3264 mA = A ;
- d- 0,0025 A = mA ; 8,6 mA = A ;

5- Huts baten zuzentzen

Handitasun-heina arras ezezaguna duen intentsitate baten neurtzeko, Oihane ez du multimetra behar bezala doitu.




- a- Zer huts egin du ?
- b- Zer erakusten ahal luke multimetraok ?
- c- Huts hori zuzen ezazu.

6- Behaketa baten aurreikusten


Zirkuituko L_1 eta L_2 lanpak berdinak dira.

- a- Dirdira berarekin argituko dute etengailua hestean ?
- b- Zer tresnaren bidez baieztatu daiteke aurreikuspen hori ?
- c- Zirkuituaren eskema marraz ezazu, neurtu tresna eta guzti.



7- Neurketa baten aurreikusten

- a- Zein da anperemetroak erakusten duen intentsitatearen balioa ?
- b- Zer erakutsiko du anperemetroak :
 - lanpa eta motorearen artean lotzen badugu ?
 - motorea eta - bornearen artean lotzen badugu ?
 - lanpa eta motorea tokiz aldatzen baditugu ?



8- Legea jarraituz

Serie zirkuituko bi anperemetroek ez dute ber balioa ematen.

- a- Bi balioen arteko desberdintasuna kalkula.
- b- Desberdintasun hori intentsitatearen balioei dagokie, edo anperemetroen ibilmoldeari ?
- c- Zirkuituaren zer aldaketaren bidez erakutsi daiteke bi anperemetroetatik bat ez dabilela ongi ?

